

# noa.ua



**Aniztasunaren aldeko eguna  
izango da larunbatekoa**

**Jai-giroan murgiltzeko gogoz  
dira Santuenean**

**Usurbil Futbol Taldea ere,  
martxan**

**Asteburu honetan, Topa Eszenika  
Antzerkizaleen plaza nagusia izango da Sutegi**

# BOX Alokairua

3 igogailu + erreminta guztiak



Autokarabanak, furgonetak, quads, motorrak eta abar...  
Zuk Zeuk konpontzeko tokia eta erremintak

**ORDU ERDIA : 10€**


**Ondorengo minutuak : 0,35€**

**2 ORDUTIK AURRERA DESKONTUA !!**

Eta nahi izanez gero laguntza !!

Olio, balazten, eta abar en zerbitzua

Ugaldea Pol. 9 - 4. Nabea - 3. Lokala - 20170 Usurbil



**FUNERARIA  
GONZALEZ**  
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

·EDOZEIN ASEGURU IZANDA  
(OCASO, SANTALUCIA...)

**HERIOTZA GERTATZEN BADA,  
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**  
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

**ASEGURUAREKIN IZAPIDE GUZTIETAZ  
ARDURATZEN GARA ZUZENEAN,**

(MOMENTU LATZ HAUETAN ASEGURUAREN POLIZA ZENBAKIA  
EDO ERREZIBOA EDO HORRELAKORIK EZ DUGU BEHAR,  
ASEGURUAREKIN ZUZENEAN IZAPIDEAK EGITEN DITUGU)

**943 36 21 63 (24H)**

·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK  
·Asegururik EZ duten familientzat Usurbilgo  
beilatokia DOAN (gure eskutik)

[info@funerariagonzalez.es](mailto:info@funerariagonzalez.es) [www.funerariagonzalez.es](http://www.funerariagonzalez.es)



**ETA ORAIN...  
IKUSI FUTBOL  
PARTIDUAK  
GUREKIN!**



egunero 06:00tik 21:00ra (asteburutan ere)

**PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)**

**KAMDEN**  
hizkuntzak

**CONGRATULATIONS**

**Cambridge University-ko  
"FIRST" azterketa gainditzeagatik**

Aitor Arzallus Sagardia  
Borja Pulido Orbegozo  
Igor Beristain Mujika  
Jon Guadix Domínguez  
Jon Hernández Sagardia  
Maria Rivas Álvarez  
Xabier Lazkano Iturrioz

**English courses**

**Matrikulazio epea zabalik**

[www.kamdenhizkuntzak.com](http://www.kamdenhizkuntzak.com)

Zubiaurrenea 6 · 943 37 14 02

## Albiste iruditzen

# Desfile aldarrikatzailea abiapuntu

**E**z oihukatu entrenatzaileari, "ahaztu emaitzak eta animuak bidali", "Ez gutxietsi epailean", "Aita-ama, arau hauekin jolastu nahi dut", "Goza ezazu jolasten dudanean", "Zure babesarekin zoriontsu izango naiz!!!", "Ez ahaztu, jolas bat besterik ez dela", "ez iezadazu jendarean oihu egin", "ez zaitez urduritu", "ez gutxietsi nire taldekideak"...

Mezuok idatzita zeramatzen karteekin, jai giroan burutu zen desfile koloretsu baten bidez, aurreko edizioetako jarrera desegokiez ohartarazi nahi izan zuten irailaren 5ean, 2014ko Usurbil Cup txapelketan izena eman duten 34 taldeetan bildutako 350 bat jokalariek.

Usurbil FT-k antolatutako kirol ekimen herrikoa aurkezteko hitzordua baliatu nahi izan zuten horretarako. Askatasuna plaza, Mikel Laboa plazarekin lotu zuten kartelak eskutan, desfile batekin. Abiatzen zen Usurbil Cup giroaren hasteko gainera, frontoi atzealdean, taldeko argazkiak atera zituzten gero. Antolatzaileek, jokalariek, taldeetako arduradun eta gurasoak inplikatu nahi dituzte, neurketetan



"Goza ezazu jolasten dudanean", hala dio talde honen lema. Irudi gehiago, [noaua.com](http://noaua.com) atarian.

jarrera desegokirik egon ez dadin sustatzeko elkarlanean. Guztia, aurreko edizioetako, aurtengoan errepikatu ez dadin. Ia, haur eta gaztetxoek ostiral arratsaldean karteetan idatzita zeramatzen eskaera guztiok betetzen diren

abiatu berri den txapelketan.

Asteko egun bat baino gehiagotan jokatzen dabilta partidak, Haranen, Kiroldegian edota frontoian. Usurbil Cup-eko azken neurketak eta sari banaketa, iraila amaieran.

## Laburrean

### Katekesi taldeak ere, hastear

Salbatore Parrokiako katekesi taldeak ere martxan izango dira laister. Izena eman behar da aldezturik: irailaren 16an eta irailaren 17an, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara Parrokiako bulegoetan. "Gurasoak bertaratzea komenikolizateke", katekesi taldekoek aditzera eman dutenez.

### Udarregi ikastolako eraikin berriaren inaugurazioa

Irailaren 20an, eguerdi partean inauguratuko dute Udarregi Ikastolako eraikin berria: bertako eta garaiko jaki ekologikoak zerbitzatzen dituen jangela berria, Haur Hezkuntzakoentzako gela berriak... Ikastolatik oso pozik dira instalaketekin. Gunea, irailaren 20an ezagutzeko aukera egongo da.

### Usurbil Kirol Elkarteko bazkidetza

Bazkidetza egiteko aukera berria larunbat honetan, 18:00etatik aurrera Oiardon. 1. nazional mailako senior mutilen taldeak Euskal Kopako neurketa jokatuko duen arratsaldean hain zuzen. Urteko kuota 30 eurokoa da, eta partida guztietara doan sartzeko bide ematen du. Bazkide ez direnei sarrera 5 euro kostatuko zaie.

# noaua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil

943 360 321 /// [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com) /// [www.noaua.com](http://www.noaua.com)

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**

Idoia Torregarai.

**Aldizkari koordinatzailea:**

Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Arantxa Zulaika,

[publizitatea@noaua.com](mailto:publizitatea@noaua.com)

**Diseinu berria:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua,**

[erredakzio@noaua.com](mailto:erredakzio@noaua.com):

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Banaketa:** Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiete, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Aritz Gorriti

## “Paperak” nahi dituzte

Ospa egin dute, baina askatasunaren atea irekiko dieten giltzak nork dituen gogorarazten diete une oro. Eta txuleria handiz gainera. Dibortzioko eskubidea aldarrikatzen dute, ezkontuta bizitzera behartuak sentitzen zirenez, aurrerantzean bakoitzak bere bidea jorratzen segi eta hobeto egon ahal izateko. Baina hori ere ukatzen diete. Ukaziorako, epaileak, hedabideak, guztia erabiltzeko gai dira. Hautsia dagoen bikote harremanaren haus-tura unea irudikatzen unea gerturatu joan ahala, lekuan lekuko mozorroak aldatzen doaz. Estrategiak ezberdinak dira, urduritasuna

halere hazten doa. Irailaren 11, 18 eta azaroaren 9az ari naiz. Etorkizunean nortzuk, nongoak izan nahi duten adierazteko hitzordu historikoen aurrean egon eta behartuta bi estatuei kateatuta bizi diren bi herriei buruz ari naiz. Aurkezpenik ez dute behar honez gero.

Merezi du nabarmentzea, bai Katalunian, Eskozian, herritarrei zer nolako herrian bizi nahi duten galdetzeko borondateari tinko eusten dioten artean, nazio bakar eta batua aldarrikatzen dutenen estrategiak nola inprobisatzen doazen; Madril-en kasuan, erabakitzeo eskubidearen alde dauden katalanen aurkako aliantza bat osatu nahian dabilta.

Momentuz, pentsaera bera partekatatu dezaketenen artean ere, ez zaie inor batu. Zergatik ote? Sinisten hasiak ote dira, sarri entzun izan den esaera hori, alegia katalanen aurka hitz egiten duen aldi oro, independentistak sortzeko makina hutsa dela estatu espainiarra? Polizia zintzo eta maltzuraren paperak jolastuz dabiltzala dirudite Espainia eta Erresuma “Batua”.

Inkesta batek lehen aldiz, irailaren 18ko Eskoziako galdeketa baiezkoak irabaz dezakeela jakin berritan, eskuzabal portatu nahian omen dabil Westminster. Eskoziarrek orain arteko “harremanari”

eusten badiote, botere edo autonomia gehiago eskainiko diotela. Gozokiak eskaini edo egurra emanda, erakarri nahi dituzte estatu handiek teoriar maite beharko lituzketen Eskozia eta Katalunia. Baina benetan maiteko balituzte, ez al liekete alde egiten utzi behar? Bikote harreman kaltegarrien antzera ordea, mintzera doaz. Propietatean nahi dituzte Espainiak eta Erresuma Batuak, Katalunia eta Eskozia. Betiko kateatuta. Baina konturatzen ari dira, katea apurtu dutela. Ospa egin dutela etxetik. Eta orain ihesaldia formalizatu nahi dutela. Paperak nahi dituzte behingoz, bide berri bati ekitako. Emozio handiko egunak datoz.

Imanol Ubeda | **Aritz Gorriti** | Maialen Unanue | Luis Aranalde | Idoia Torregerai | Nerea Zinkunegi | Joxe Piñas

### Ika-mika

## Eskoziar herriari agurrik beroena

Urteetako ibilbidearen ondoren, Eskoziar herriak bere etorkizuna libreki erabakiko du datorren irailaren 18an. Eskozian, bertako herritarrek hartuko dute hitza; eta herritarrek izango dira, Eskoziak zer nolako antolaketa politikoa izan behar duen erabakiko dutenak.

Irailaren 18an Eskozian egingo

den erreferendum-a, herrien askapen prozesuen ibilbidean beste urrats garrantzitsu bat izango da. Eskoziarrak, dagoeneko beren herriaren etorkizunaren jabe dira, eta laister batean, Katalunia, Euskal Herria eta munduko hainbat nazio ere eskubide hori egikaritu dugu. Herrien askatasunaren aldeko atzerazine-

ko prozesu bat abian dagoelako mundu mailan.

Egun historiko honen aurrean, honako adierazpen hau egin nahi dugu Usurbilgo Udaletik:

1.- Eskoziar herria zoriandu nahi dugu, libreki etorkizuna erabakitzeko burutzen ari diren ariketatik. Herri orok duen eskubidea praktikan eraman da.

2.- Munduko herri askeen historiarako geratuko den data izanik, eta Eskoziar herritarrek beraien etorkizuna libreki erabakitzen ariko diren egunean bertan, gure babesa adierazteko, Eskoziako bandera jarriko dugu instituzioaren fatxada nagusian.

**Usurbilgo Udala, 2014ko irailak 8**

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: irailak 19. Idatzia ekartzeko azken eguna: irailak 15.

**TXAPELDUN  
TABERNA**  
razioak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak...  
Muna lurre 2, 943 11 82 53

**JUANTXO  
BURDINDEGIA**  
Zubiaurrenea 8  
943 370 008

**Patri Jatetxea**  
  
K/nagusia 14. © 943 362 725

  
**EROSKI/city**  
kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182

## Batukada feministaren ikastaroa urrian hasiko da



Irailaren 30ean amaituko da izena emateko epea.

Iazko esperientzia ona errepikatu asmoz, berriz antolatu da batukada ikastaroa. Saiok urritik abendura egingo dira, egunotan; urriaren 4an eta 18an, azaroaren 15 eta 29an eta abenduaren 13an. Izen emateko dei-

### Matrikulazioa zabalik euskaltegian

"Euskara praktiko" lemapean, euskara ikas-tera animatzen dute Etumeta-AEK euskaltegitik. Hauxe ikasturte berrirako eskaintza: euskalduntze ikastaroak, autoikaskuntza, Mintzalagun... Izen emateko eta informazio gehiago euskaltegian:

Etumeta AEK Euskaltegian, Kale Nagusia, 43 Usurbil.

Astelehenetik ostiralera:

11:00-13:00 eta 18:00-20:00.

Telefono zenbakia: 607 609 379.

E-posta: usurbil@ae.org

Web orria: muntteri.blogspot.com.es

tu irailaren 30a baino lehen, 943 377 110 telefono zenbakira edo idatzi parekidetasuna@usurbil.net helbidera. Mezuan, izen abizenak, helbidea eta harremanetarako telefono zenbaki bat zehaztu.

### Einean taldekoen ikastaro eskaintza zabala

Urrian hasiko da ikasturtea. Izen ematea irailaren 15era arte zabalik.

**Laboreak:** astean behin, 2 ordu. Juani (609 41 38 83).

**Yoga:** astean behin, 1,5 ordu. Sebas (605 72 28 25).

**Pintura:** astean behin, 2 ordu. Susana (609 41 38 83). Bilera: irailaren 18an, 18:30ean, San esteban 3 egoitzan.

**Eskulanak:** astean behin, 2 ordu. Susana (609 41 38 83).

**Sabel dantza/ Hip Hop:** astean behin, 1,5 ordu. Uarda (637 25 68 51).

### Sexu Aholkularitza Gunea irailaren 16an zabalduko da berriro

"Gaiak sakontzeko liburu gomendagarriak, gogoetarako baliabideak, kezkek eta zalantzak argitzeko... orientazio sexuala, sexu-nortasuna, desiraren inguruko zalantzak, harremanetan zailtasunak..." eta askoz gehiagorako dago, Sexune ikerketa, heziketa eta aholkularitza sexologikoak kudeatzen duen Usurbilgo Sexu Aholkularitza Gunea.

Udalaren doako zerbitzua asteartean, irailaren 16an irekiko dute berriz. Iraileko lehen, hirugarren eta bosgarren astear- teetan, 17:00etatik 19:00etara. Ordu-tegi horretan egongo da Elena Jimenez sexo- logoa herritarrek hartzeko prest. Hitzor- dua aurrez eskatu behar da: 697919516, sexuaholku@usurbil.net edo Usurbilgo Sexu Aholkularitza gunea sexune face- book-en. Gunea, Gizarte Zerbitzuen egoi- tzan kokatzen da, Nagusia 43an.

### Operario laguntzailea kontratatze deialdia

Lan deialdia: operario laguntzaile lanpostua bitarteko funtzionarioaz hornitzeko oposizio deialdia. Lanaldi osoa eskaintzen da.

Egin beharreko lanak: kale garbiketako lanak, igeltsaritza lanetan lagundu, lo- rezaintza lanak, iturgin eta elektrika- rriari lagundu, hilerrietako mantentze, ehorzketa eta lorezaintza lanak, insta- lazio lanak...

#### Eskabide aurkezpena:

Irailaren 17ra arte, udaletxean.

#### Beharrezko titulazioa:

Eskola-ziurtagiria edota B motako gida- baimena.

#### Informazio gehiago:

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, usurbil.net, edo udaletxean (943 371 951).

**ANTXETA**  
taberna-jatetxea

eguneko menuak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

Okindegia-Gozotegia

**LABE-GOXO**

**LOGOPEDIA**  
Haurrak / Nerabeak / Helduak  
TERAPIA MIOFUNZIONALA

- Arnasketa arazoak, disglusia, degluzioa
- Ahotsaren tratamenduak: disfonia funtzionala simple eta konplexua, disfemiak...
- Hizkuntza eta ulermenaren zailtasunak: dislexia, disortografia, diskalkulia, TDA-H, disartriak...

Aurreko hitzordua: 635 701 374

# Zubiak eraikitzen laguntzeko

“Usurbil, herri anitza!” jaialdia ospatuko da larunbatean frontoian

**O**nartzea “asko kostatzen zaigun arren, denok ditugu barneraturiko aurreiritziak. Txikitatik sartu dizkigute eta hori aldatzea da kostatzen zaiguna. Baina zurrumurruak deseraiki beharrak ditugu”, elkarbiziko bagara. Hala dio Aintzane Iribar herritar gazteak, beste udalerrietan bezala, Usurbilen ere biztanleen jatorriari dagokionez dugun errealitate anitzaren inguruan. Eta badaki noski zertaz ari den.

Venezuelan jaioa, Aintzane 10 urterekin heldu zen Usurbila. Aldaketa nola ez, handia, eta ingurune berrira egokitu behar izan zuen. Bertako hizkuntza menderatzea lehenengo erronketako bat zuen. Gogotik ahalegindu zen Udarregi Ikastolan, LH 6.mailan hasi zenean. “Dena euskaraz hitz egiten zen, hika gainera. Gogoan dut euskarako aditzen taula. Hor ibiltzen nintzen buruz ikasten. Etxean dut gordea aditzen taula handia”, oroitzen du irribarre artean. Egun koadrilakoak dituen lagunen eta bere arteko komunikazioa ez zen erraza hasieran. Umoretsu azaldu digu, berak euskaraz justu zekiela, eta lagunek nahiko lan izaten zutela erdaraz hitz egiten. Denborarekin halere, elkarren arteko zubiak eraikitzen joan ziren. Gaur arte.

Euskara gainera ez zitzaion gutziz arrotza suertatzen, ordu-ra arte ikasketak eta bizimodua erdaraz bideratu zituen gazteari. Aita euskalduna baitu, eta Aintzane Venezuelen Euskal Etxean



Nerea Altxuk eta Aintzane Iribarrek eman dizkigute aniztasunaren jaiari buruzko xehetasunak.

## NEREA ALTXU

**“Udaletik bazen jaialdi hau aurrera eramateko nahia. Hilean behin biltzen joan gara eta planteatu dugun lehen ekintza izan da irailaren 13koa”.**

bizitakoa da. Euskara eta zenbait euskal ohitura ezagutzeko aukera izan zuen Usurbila etorri aurretik. “Euskal Etxean bizi nintzenez, pailan ibiltzen nintzen, orduak ematen nituen frontoian. Euskal dantzetan ere parte hartzen nuen”,

oroitzen da Aintzane. Horri bere izaera ireki, alai eta gertukoen babes eta laguntza erantsita, Usurbilgo bizimodura egokitzea errazagoa egin zitzaion.

## Aurreiritzien aurkako borrokan

Ederki oroitzen du ikastolan garai hartan zegoen etorkin bakanetakoa zela bera. Gaur egun ordea, nabarmen aldatu da errealitatea. Usurbilgo biztanleriaren %16,8 Euskal Herrikan kanpo jaiotakoa da. Ikastolan edota kalean argi islatzen da. Aniztasun handiagoak ordea ez ditu gutziti ezabatu, oraindik jendartearen ezagutza faltak eraginda barnera-

tuak ditugun aurreiritzi edo zurrumurruak. Horiei aurre egiten dabil, egun SOS Arrazakeria taldeko kide den Usurbilgo gaztea.

Gainera, herrian bizi diren jatorri anitzeko lagunen topagune izan, elkar ezagutu eta elkarbizitarako zubiak eraikitzen laguntzeko “Usurbil, herri anitza!” jaialdia antolatzen lanetan buru-belarri murgildua dabil Iribar. “Ideia planteatu zidatenean ilusio handia egin zidan. Elkartzen hasi ginen, zer eta nola egin erabakitzen. Egun bat izan behar zuela planteatzen genuen, baina ez izatea egun puntual bat, jarraipena izango zuen lanketa bat izatea baizik”, dio Iribarrek.

**Otar-Goxo**  
Elkagaiak  
Zubiaurrenea, nº2  
☎ 943 36 55 81  
20170 Usurbil

**TAXI**  
24 h  
**USURBIL**  
677 37 34 66 | Joxe  
943 36 21 78 | Etxabe

**ARTZABAL**  
Baserría - Jatetxea  
943 36 91 39  
artzabaljagetxea.com

**WHEEL MADAMA**  
Talde murriztuak eta pertsonalizatuak  
• Lehen eta Bigarren hezkuntza  
• Batxilergoa • Selektibitatea  
• Lanbide heziketa  
• Ikasketa teknikoak • Hizkuntzak  
629944690  
Galtzaragaña 1, behea USURBIL

# topagunea

Usurbilgo Udaletik sustatu duten lanketa baten haritik dator neurri handi batean, irailaren 13ko jaialdia. Gaia ikuspegi desberdin batek lantzeko behar batetik. Hausnarketa prozesu bat burutu du Udalak. Formakuntza ere jaso dute bai udal ordezkari eta teknikariek. Prozesu horretatik zenbait erronka ere finkatuak dituzte. Besteak beste, "inmigrazio politikatik harago aniztasun eta elkarbizitza politikan oinarrituriko lanketa bat egitea, eskubide eta aukera berdintasunean oinarritutako politikak". Jorratu beharreko zenbait lan ildo ere adostuak dituzte; "Aniztasunaren eta elkarbizitzaren lan dinamiketan sakontzen jarraitzea edota aniztasuna kohesiorako tresna izatea".

Gai honetan ere, udal, eragile eta herritarren arteko elkarlana beharrezkotzat jotzen da. Hortik etorri da duela hilabete batzuk, Usurbila bizitzera datozei begira Udalak kaleratu zuen ongi etorri gida, edota larunbat honetako jaialdia. "Udaletik bazen jaialdi hau aurrera eramateko nahia, herritar batzuk ere aspalditik gai honen inguruan ibili dira lanean. Hilean behin biltzen joan gara eta planteatu dugun lehen ekintza izan da irailaren 13koa", berri eman dio NOAUA!ri, Nerea Altxu udal teknikariak.

Aniztasunaren topagune, eta ez bereizle izango da frontoia larunbat honetan. Aintzane gogorarazten duen moduan, "desberdinak izango gara, baina berdinak ere bai gauza



Aintzane Iribar 10 urterekin iritsi zen gure herrira.

batzuetan. Denok gara mundu berekoak, bakoitzak bere kultura du. Hala ere, askotan gehiago erreparratzen diegu ezberdintasunei". Eta desberdintasunek bereizi egiten bagaituzte, asko kostatzen zaigun zubi lana egin behar norbaitek. Nork ordea? "Herritarren eta etortzen denaren arteko zubi bat eraiki beharra dago, eta hori bion ardura da. Hor asko dago egiteke", Nerea Altxu udal teknikariaren esanetan. Proposatzen duen bide orria hemen; "Garrantzitsua da ditugun aurreiritziak deseraikitzea, positibotik eraikitzen jarraitzeko". Egunotan, mugari berria jarriko dute zubiak eraikitze lan horretan.

## Elkar aberasteko topagunea

Arratsalde pasa ezberdin bat proposatzen dute antolatzaileek, larunbat honetarako. Aberasgarria izango dena ziur, gutako askorentzat ezezagunak izan baina Usurbilen

bertan bizi diren errealitate eta herritarren esperientziak ezagutzeko. Jaialdiko aurkezpen lanak hiru hizkuntzatan bideratuko dituzte, munduko txoko ezberdinetatik Usurbila bizitzera etorritako herritar guztiengana heldu ahal izateko; euskaraz, erdaraz eta arabiarrez.

Gastronomia, dantza, musika eta ikuskizunak batuko ditu jaialdiak. Hasteko munduari bira emateko aukera izango dugu, lekuan lekuko gastronomiaren eskutik. "Nigeriako postuak izango ditugu, txinatarrak, mauritaniarrak...", antolatzaileen esanetan. Ipuin antzeztua baita; "Babutxa madarikatuak". "Elkarbizitza, aniztasuna eta euskara sustatzen dituen proiektua. Gazte marokoar batekin eginiko lanketa, ipuinak antzezten dituen Idoia Sanchez aktorearen eta Kolore Biziak-eko hezitzaile batzuen laguntzaz. Arabiarrez antzeztuko dute gazteek, eta Idoiak ipuina euskaraz egingo du". Ekitaldi honen bidez,

haur euskaldunei arabiarra gerturatu nahi zaie, eta gazte arabiarrek bertako kulturara gerturatzea. Finen, zubiak eraikitzea.

Eta elkatrue kulturalerako beste bi hitzordu; euskal dantzen eta dantza afrikarren emanaldia lehenik, eta La Jodedera taldekoen emanaldia segidan, euskarazko abestiak melodia kubatarrekin.

## Zurrunmuruak deseraikitzeko

Atzean ezagutza falta, beldurra ezkatzen duten jatorri anitzeko herritarren inguruan hainbat zurrunmuru indar handia izaten segitzen dute gaur egun, jendar-tean. Horren inguruan jardungo dute larunbateko jaialdia girotuko duten bi ekitaldik; SOS Arrazakeria taldekoekin Sutegin antolatu duten erakusketak eta hitzaldiak. Erakusketan argi ikusiko ahalko da Nerea Altxu udal teknikariaren esanetan, "elkarbizitarako zubi sendoak eraiki ahal izateko zer garrantzitsua den zurrunmuruak, aurreiritziak deseraikitzea, gehien kostako zaigun lana".

Parte hartzera deitzen dute. "Jaialdia izan dadila aitzakia, herritarren hurbiltasun hori emateko. Egun polita izango da, jatorri anitzetako jendea ikusteko". Udaletik errolda eskutan, larunbateko jaialdian parte hartzera animatzeko gutunak bidali zaizkie Usurbilen bizi diren munduko txoko ezberdinetako herritarrei. "Usurbil hain herri txikia izanda, ezagutzen ditudanak harrirtuta zeuden ekimen hau antolatzearekin. Baina ondo hartu dute", dio Aintzane.

## Ekitaldi bete asteburu, aniztasunaren alde

**Irailak 11-13,**

**ostegunetik larunbatera**

Erakusketak Sutegin: SOS Arrazakeria taldekoen "Zurrunmuruak deseraikitzen".

**Irailak 11, osteguna**

19:00 Hitzaldia Potxoenean: "Zu-

rumurruen aurrean alternatibak ehuntzen".

Hizlaria: Agustin Unzurrunzaga, SOS Arrazakeria.

**Irailak 13, larunbata:**

**"Usurbil, herri anitza!" jaia**

17:00 Ongi-etorria.

17:30-20:00 Herrialde desberdinetako jaki-dastaketa:

18:00 "Babutxa madarikatuak" ipuin antzeztua, Kolore Biziak-eko Baraka Taldea eta Idoia Sanchezen eskutik.

18:45 Buruhandiak.

19:00 Aniztasunarekin dantzan:

euskal dantzak eta dantza afrikarrak. Usurbilgo Dantza Taldearen eta hainbat herritarren parte hartzearekin.

20:00 Kontzertua: La Jodedera.

Antolatzaileak: Aniztasunaren aldeko herritarren lantaldea eta Usurbilgo Udala.

## Kalitateko antzerkiaz gozatzeko egunak

**P**unta puntako aktore eta antzezlanak irailaren 10etik 13ra Usurbilen, VI. Topa Eszenikaren baitan. Sarrera merke askoekin gainera. Alex Tellok zehaztasun gehiago.

**NOAUA! Ikastaro eta antzezlanen oreka bat ematen zen aurreko edizioetan. Aurten antzezlanen aldeko apustua egin duzue?**

**Alex Tello:** laz parte hartzea jaitzienez, aurten ikastaroak ez antolatzea erabaki dugu. Bi mahai inguru antolatu ditugu, bat euskarazko antzerkiaren dokumentazio zentroaren inguruan eta bestea Topara etorriko diren antzezlanen sortzaileekin. Beraien obraren aurkezpen bat egingo dute, baina batez ere eskola izango da. Obra bakoitzaren prozesua ezagutu nahi dugu.

**Publikoarentzat sarritan ezezaguna den prozesua?**

Ideiak nola, nondik sortzen diren eta gero talde bakoitzak ideia batekin azken emaitzerako bide hori nola jorratu duen ezagutu ahal izango dugu. Bakoitzak bere zailtasunak azalduko ditu, non ibili diren erraz, non kostata. Oso interesgarria. Toparen helburuetako batekin bat egin, gure arteko elkar ezagutzarako lagungarria izango da.

**Lau antzezlan programatu dituzue, punta puntako aktoreak datoz?**

Apustua, aktore ezagunak ekarri eta balore berriei aukera ematea da, aspalditik daudeneke jarraipena izatea eta aktore berriei aukera ematea. Bi antzezlan ditugu aktore ezagunekin eta badakigu kalitate bat bermatua dagoela. Besteen kasuan ez dakigu,



Alex Tello Antzerki Ekintzako kidea, "Etzi" antzezlaneko kartela eskuan.

### ALEX TELLO

**"Gure apustua, aktore ezagunak ekarri eta balore berriei aukera ematea da"**

baina aukera eman behar zaie.

**Hurrengo edizioetarako nola berriro nahi zenukete Topa Eszenika?**

Kale antzerkiarekin. Topa Tarregako jaialdia ospatzen den egunekin egokitzen da. Tarregako kale antzerkiaren azokara doan talde bat ekarri nahi genuen. Haiantzat ordea Tarregakoa oso hitzordu garrantzitsua da. Bestalde, iaz Topa Lasarte eta Añorgara zabaldu zen. Aurten ez, Usurbilen. Horrek ez du esan nahi datorren urtean zabalduko ez denik. Topa egin da, egiten da eta egingo da, Udalak lagunduta. Udalaren babesak profesionalak ekartzen laguntzen du. Kalitatea ekarriko dugu eta kalitateak bere "katxea" du. Aurten Usurbilen, helduentzako areto antzerkiekin, programaketa on bat egon da.

**Aurreratu Sutegin ikusi ahal izango dena...**

Lau obretatik bi ikusiak ditut, beste biak ez. Arriskatu egingo dugu. "Satisfaktion" obra 2013an Donostian sarituriko proiektua. Aktore ausart bat izango dugu, eta antzerki ezberdin bat ikusteko aukera. "Amets zirkoa salgai", barre asko egiteko antzerkia, euskal zirkoa. Sorkuntzan lagundu nien, Gaztetxean prestatu zuten. "Hitzak", oso obra potentea genero indarkeriari buruz. Bi urtez emanaldi asko egin dituzte.

Azken urteotako obrarik potenteenetakoa. "Etzi", Joxe Ramon Soroz, Pilar Rodriguez, Asier Oruesagasti eta Aitor Zufiurrerekin. Zufiurre, down sindromea duen aktore urretxuarra da.

Eredugarria iruditzen zait, down sindromea duen aktore bat, Soroz bezalako aktore puska batekin ikustea. Bide batez, Jon Uriberri keinu bat egin nahi diogu, Gaztetxean, Sutegin eta kalean, antzerkia zegoenero etortzen baitzen. Eskertuko genuke Topara datozen iritziak, obrei buruzko sentsazio horiek transmitzea.

**Irailak 10 asteazkena**

**18:30 "Antzerki sortzaileak" mahai ingurua** Potxoenean. Parte hartzaileak: Alex Gerediaga (Khea Ziater), Ion Martinez (Aldatzen Laguntzen), Agurtzane Intxaurre eta Ainhoa Aierbe (Hika) eta Asier Zinkunegi (Dardar). EHAZEko koordinatzaile Itziar Eliasek gidatuko du saioa.  
**20:30 "Satisfaktion"** (Khea Ziater) Sutegin. Sarrerak: 3 euro (egunean bertan).

**Irailak 11 osteguna**

**15:00-17:00 Mahai ingurua** Potxoenean antzerki munduko adituekin: euskarazko antzerkiaren dokumentazio zentroaren inguruko gogoeta.  
**20:30 Amets zirkoa salgai** (Aldatzen-Laguntzen) Sutegin. Sarrerak: 3 euro (egunean bertan).

**Irailak 12 ostirala**

**22:00 "Hitzak (Hika Teatro)" antzezlan** Sutegin. Aktoreak: Klara Badiola, Ainhoa Aierbe, Ane Pikaza, Jabi Barandi, Agurtzane Intxaurre.  
Sarrerak: 6 euro (egunean bertan).

**Irailak 13 larunbata**

**22:00 "Etzi (Dar-Dar produktioak)" antzezlan**, Sutegin: Aktoreak: Jose Ramon Soroz, Pilar Rodriguez, Asier Oruesagasti, Gorka Zufiurre, Asier Zinkunegi. Sarrerak: 6 euro (egunean bertan).

**Sarrera erreserba**

Sarrera erreserbatzeko aukera dago, topaeszenik@gmail.com helbidera idatzita.

NOAUAko bazkideen artean, hainbat gonbidapen zozketatuko ditugu. Informazio gehiago: 18 orrialdea.

*Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!*

# USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

www.noaua.com  
USURBILGO ATARIA





# BISITA GIDATUAK

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN JAUREGIAN

Ezagutu jauregiaren historia eta aretoek gordetzen duten ondare artistikoa

Taldea osatu eta eskaera egin  
[info.gipuzkoa@gipuzkoa.net](mailto:info.gipuzkoa@gipuzkoa.net) helbidean

# Kirol jardueretan euskarari txanda eman

**Eskualdeko kirol ikastaroetan euskarari txanda ematea begiz jota dute Udal erakundeek. Datuak argiak dira, euskaraz egin daitekeen kirol eskaintza nabarmen areagotu da azken hamarkadan. 2014-2015. ikasturtean ere euskararen lekukoa erabiltzaileei eskainiko zaie. Hauek lekukoa hartu eta sendo eusteko aitzakiarik ez dute izango.**

Irailaren hasiera gauza askoren hasiera da. Besteak beste, kirol ikastaroei ematen zaie hasiera. Izen emateak, ordutegiak, egutegia,..., ehunka herritar bere herriko kiroldegian informazio eske edota izena ematen dabil egun hauetan. Izerdia lagun, laster hasiko dira gozatzeko eta sufritzeko sesioak. Gozatuz eta sufrituz, kirola eginez beti ere, euskarak ikastaroetan toki garrantzitsua izan dezan lanean ari dira Buruntzaldeko Udalak. Euskara eta kirol arloetan bereziki lan handia egin da eskualdean: 1999az geroztik bost lankidetzaz hitzarmen eta hiru plan egin dira. Guztietan "kirola euskaraz" egitasmoa parte izan da. Kiroldegietan ehunka, milaka herritar ari dira ikastaro ugari eginez eta Udalen xedea kirol zerbitzu horiek euskalduntzea izan da. Azken datuei erreparatuta, Buruntzaldean ikastaroa euskaraz emateko gai den monitorea edo begiraleen portzentaia %95,3koa da. Ia erabatekoa, beraz. Horrek lotura zuzena izan du ikastaroetan euskararen erabilera areagotzeko garaian. Hamar urte atzera erdara nagusi zen. Orain berriz euskara gailentzen ari da. Garapen horren gakoa eskualdean nagusi den metodologian aurki daiteke.

## METODOLOGIA

Usurbilen, ikastaroaren hizkuntza alde aurretik definitzen da. Gainontzeko herrietan hizkuntza irizpidea ikasleei galdetu ondoren ezartzen zen lehen. Gaur egun indarra hartzen ari dena tarteko metodologია da:

- A taldea. Partaide guztiek edo ia guztiek ulertzen dute euskara. Ondorioz, ikastaroa euskaraz emango da.



Ander Peñagarikano eta Ruben Villalón kirol ikastaroetako monitorea dira.

## “Gero eta gehiagotan egiten da kirola euskaraz, ez dago arazorik”

Kirol ikastaroetan monitorea lanetan aritzea ogibide bilakatu da Ander Peñagarikano eta Ruben Villalón gazteentzat. Lasarte-Oria eta Urnietako kiroldegietan aritzen dira, nagusiki. Helduekin bereziki, baina baita "Eskola Kirola"n ere. Ander Peñagarikano zarauztarra azken bost urteetan monitorea lanetan aritu da. Goizeko Lasarte-Orian spinning eskolak ematen ditu, bizikleta mantentimendua ondoren. Eta, horrez gain, gimnasia eta spinninga. Eguna Lasarte-Oria eta Urnietako kiroldegietan ematen du. Anderrin iruditzen zaio euskararen erabilera bermatzeko udalek hartutako neurriak, "ondo dator euskara piskanaka barneratzeko. Lehenago, taldea euskalduna izanik ere, erdarara igarotzeko joera zegoen. Orain talde euskaldune-

tan euskara nagusitzen da. Ikastaro batzuk teknikoagoak dira eta azalpen gehiago eman behar da. Euskaraz egiteko ahalegina egiten dugu eta baten bati ulertzea kosta egiten bazaio, azalpenak erdaraz ematen zaizkio. Ez da arazorik egoten".

Ruben Villalónek aquagym eskolak ematen hasi ohi du eguna, eta eguerdietan haurrekin igerilekuan murgiltzen da berritara. Arratsaldean Urnietara doa eta eguna amaitu aurretik gimnasia ematen du Lasarte-Oriako kiroldegian. Zortzi urtez kirol jardueren irakaskuntzari lotuta bizi da. Euskaraz jarduteko irizpideak ezarri izana ondo iruditzen zaio Rubeni ere, "ikastaroetan hizkuntzen tipologia egin izanarekin ados gaudela, ikasleekin jarduteko irizpide batzuk izan ditzagun".

- B taldea. Partaideen erdiak baino gehiagok ulertzen du euskara. Beraz, ikastaroa ia erabat euskaraz emango da. Euskara ulertzeko zailtasuna duenari azalpenak gaztelaniaz emango zaizkio.

- C taldea. Partaideen erdiak baino gutxiagok ulertzen du euskara. Gauzak horrela, ikastaroa nagusiki gaztelaniaz emango bada ere, euskarari sarbidea emango zaio agurrean, animozko hitzetan, etab.

**“Buruntzaldeko Udalek elkarlanean, kirol jardueretan euskarari txanda ematea begiz jota dute”**


## KIROLDEGIKO

### IKASTAROAK

Ikasturte honen hasieran Buruntzaldeko Udalek kiroldegira doazen herritarrei "Kiroldegiko ikastaroak euskalduntzeko programa"ren berri eman nahi diete. Publi erreportaje honen bitartez edota banatu dituzten eskuorrien bidez hainbat ikastaro euskaraz izango direla iragarri dute eta gainontzekoetan, berriz, talde tipologiaren arabera finkatuko da hizkuntza irizpidea. Alegia, A, B edo C talde modura identifikatu ondoren, horren baitako hizkuntza irizpidea ezarriko dute. Udalek ikastaroetako ikasleek euskararen lekukoari gogotsu eusteko plangintza serioa eta zorrotza aurkeztu dute, begiralearen hizkuntza-jokaera eta ikasleen ezauzgarrien arteko oreka neurtzeraino. Konkordantzia indizea deitzen diote horri. Aurreko ikasturteetan ikusitakoaren arabera, euskara nagusi den A eta B taldeetan konkordantzia handia sortzen da begiralearen eta ikasleen arteko hizkuntza-harremanean. C taldeetan, aldiz, euskarari bidea ematea kosta egiten da gehiago. Irailean hasiko da ikasturte berria, kirola eginez euskarari eusteko aukera berria. Euskara gertuko ez duenarentzat iraila izan bedi euskara barneratzen hasteko lehen pausoa. Aukerarik ez zaio faltako eskualdean.

# Kirol jardueretan euskarari txanda eman

## TALDE TIPOLOGIA KIROLDEGIKO IKASTAROETAN



# aek

euskara praktikoa

30 urtean  
50.000 lagunek  
ikasi dute jadanik  
euskara gure  
100 euskaltegietan

## eman izena



### usurbil

ETUMETA AEK

Kale Nagusia,  
45 behea  
20170 USURBIL



Esperientzia. Metodologia. Gertutasuna. Modulazioak. Efikazia.



Eskolak



Mintza  
praktika



Barnetegiak



On line



Autoikaskuntza



Normalizazio  
planak



Titulu  
homologatuak

### aek

Garena ikasteko  
para entendemos  
pour se comprendre

607 609 379

usurbil@aek.org



# Santueneko parrandan murgiltzeko irrikitan

Il railaren 19tik 21era ospatuko dira Santueneko festak, azken hilabete hauetan lanean aritu diren Jai Batzordeko kideei esker. Parranda giroan murgiltzeko astebete baino falta ez den honetan, antolatzaileengana jo dugu, ondo baino hobeto ezagutzen dituzten auzoko festez galdetzeraz. Festetako zer oroitza-pen dituzte? Zein da gustukoaren duten jaietako hitzordua? Eta festetan zerbait aldatu beharra ikusten al dute?

Iragana, oraina eta datorrenari begira jartzea proposatu diegu Jai Batzordeko hiru kideei.



Herri bazkaria igandean egingo da, irailak 21. Txartelak Ibai-Ondon eta Zaharren Egoitzan daude salgai.

- 1-Zein da gordea duzun jaietako oroitza-pen kuttun hura?
- 2-Festetako ze ekitaldira gonbidatu nahi zenituzke herritarrak?
- 3-Etorkizunerako zer nolako jaiak amesten dituzu?

JON OSA

**1-Festak antolatzen hasi ginenean, jokoak egiten genituen goizaldeko seirak aldera.** Gogoan dut, basurde txiki bat eramaten genuela. Ura botatzen genuen plastikoen gainean eta denak basurdea harrapatzeraz joaten ginen. Bizpahiru aldiz egin genuen, oso oroitza-pen onak ditut. Basurdeak denetarik egiten zigun; batzuetan ez zen ateratzen, edo ezin harrapatu, beste batzuetan alde egiten zuen...

**2-Beste urteetako jaietatik ezberdintzeko, aurten igande arratsaldean, Gorritiren showa antolatu dugu.** Badakigu inguruko auzo gehienetan ibiltzen dela, baina azken urteotan ez da Santueneara etorri. Aurten berriz jarri gara harremanetan berarekin.

**3-Azken urteotako festak oso politak izan dira, ez dugu arazorik izan. Aurten azken hiru urteotako bezalako festak izatearekin aski dut, baita aurrera begira ere. Ez dut gehiago eskatzen.**



OINATZ TOLEDO

**1-Txosna jartzen dugun inguruan lehen kukaña modukoa jartzen genuen,** 3-4 metrokoa. Ez zen batere erraza igotzea, erabat koipeztua egoten baitzen. Buru argienek, kukañara igotzea koipe guztia kendua zegoenerako uzten zuten. Gogoan dut, urte bat baino gehiagotan gora igo nintzela tranpa eginda. Bat baino gehiago behean jarri eta lagunduta igotzen nintzen. Garai hartako 2.000 pezeta irabazten ziren garai hartan. Diru hori banatu genuen, festetako aportazio ederra izan zen. Pena, ohitura hura galdu izana.

**2-Ostiral gaueko kontzertuak.** Festak antolatzen hastean, lotzen dugun lehenengoetako ekitaldia izaten da, oso azkar kontratatzen dituzte eta taldeak. Aurten gaua giron hasteko, Besteikpe hautatu dugu. Willis Drummond kontzertu potenteena bezala. Usurbilen eman zuten ikuskizuna izugarria izan zen gainera, asko gustatu zitzaigun. Bukatzeko, Joxpa berbera talde ederra. Duela hiruzpalau urtetik



etorri izan dira. Oso giro ona jartzen dute.

**3-Aldatzeko tarte askorik ez dugu.** Urtero ordu solteetan, ekitaldi ezberdin batzuk sartzen saiatzen gara; Gorritiren showa, edo iaz Neska Kabaret. Ideia ona izan zen. Igande arratsaldean ekintza ezberdinak programatzen ditugu proba moduan, adin guztietako herritarrak egoten diren unea dela jakinda.

ITSASO GONZALEZ

